

Gaur Eibarren mahai negoziatzailean bildu gara, eta gai bakarra izan dugu hizpide: finkoen leku-aldatzea. Aurreko bilera batean Haurreskolak Partzuergoak leku-aldatzearen inguruan zirriborro bat luzatu zigun, sindikatuok azter genezan.

STEE-EILAS sindikatuak, afiliazioak egindako proposamen guztiak aztertu, sindikatu barruan landu eta gure zerbitzu juridikoekin jorratu ondoren, ez dugu langile guztien lan baldintzak bermatzen dituen proposamenik topatu.

Hau dela eta, STEE-EILAS sindikatuak **enpresari langile guztien eskubideak uztartuko dituen proposamen berri bat egitea eskatu dio.**

**LANGILE GUZTIEN ONURARAKO,  
BIDEZKOA DEN ARAUDIA LORTZEKO  
STEE-EILAS BETI LANEAN**

